

1-Taldean deskribatzea



Arrantzalea-Aurelio Arteta 1925
Menchu Gal -1919-2008



♦ Potreta bat hauta ezazue taldeka.

- ♦ Ahal bezain bat informazio idatz ezazu entsegu-kaierean:
 - modeloaren ezaugarriak (neska, emazte, adina, garaia...),
 - gorputzaren eta bisaiaren hazpegiak (formak, koloreak),
 - posizioa, besoen eta eskuen kokagunea... (aitzinetik, parez-pare, saihetsez, bizkarrez...),
 - adieraziak diren sentimenduak.

Solasaldia antola ezazue:

- Orainaldian mintza zaitezte, modelo aurkez ezazue lehenik orokorrean, ondoren xehetasunetan, eta azkenik sentimendu mailan.
- Hitz zehatzak hauta itzazue, adjektiboak eta izenordain posesiboak erabiliz: **haren gona urdin argia** da... Erranaldi laburrak egin.

2-Zure ikaskide bat deskriba ezazu

- ♦ Ikaskide bat hauta ezazu eta diskretuki behaiozu.
- ♦ Taldearen aitzinean deskriba ezazu. Ikaskideek asmatuko ote dute nortaz mintzo zaren?

Hitz-kutxa: begitarte, aurpegi edo bisaia irritsua, alegera, alaia, seriosa, zorrotza, gogorra, larderiatsua, kezkatia, arranguratsua, grinatsua, laketa, goxoa, gustagarria, atsegina, plazenta, karana,...

3- Artista edo pertsonaia famatu bat deskriba ezazu



Maialen Lunjanbio bertsolaria



Olentzero eta mari Domingi



Niko Etxart musikaria



Itxaro Borda idazlea

- ♦ Pertsona hauetarik bat edo beste bat hauta ezazu, eta kideei deskriba iezaiezu izena erran gabe. Asmatuko ote dute nortaz ari zaren?

4- Paisaia bat deskriba ezazu



Dunbarriak-Hendaia



Bardeak- Nafarroan

◆ Paisaia hauek deskriba itzazu zehazki:
ikusten dut, ohartzen naiz, nabaritzen dut, hautematen dut, ageri da, bereizten dut, kokatua da,...

Hitz-kutxa: lehen planoan, bigarren planoan, argia, distantzia, ikuspuntua, ikuspegia, bista, ikusmira,...



Holtzarteko zubia- Zuberoa



Okabe-Irati